

Ongi etorri

Hondarribiko EH Bilduko
Lantalde Feminista



Testuingurua - Kronologia

2018

- Alarde oso gogorra

2019

- Legealdi berria
- Alarde lasaia

2020

- Pandemia
- Elkarrizketarako aukera

2021

- Pandemia bukaera
- Elkarrizketarako ezintasunak agerian

2022

- Alardearen antolaketari jarraipena
- Alkateari galderak

2023

- Jarraipena
- Proposamena



ALKATEARI

Itxura denez "Alarde Fundazioa Hondarribia" deritzanak eskaera berria luzatu dio Hondarribiko Udalari 2022ko irailak 8an hiriko kaleetan ekitaldia, udalerriko espazio publikoan, antolatzeko.

Hori horrela, ez Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazio Erregistroan¹ ezta Nafarroa Foru Komunitateko Erregistroan ere, ez dago erroldaturik inolako fundaziorik "Alarde Fundazioa Hondarribia" izenarekin. Are gehiago, euren web gunean ageri den G31629181 delako Identifikazio Zenbakia (IFZ/IFK) ez dagokiola inolako fundaziori.

Kontuan hartuz ustezko fundazio horrek hiriko eremu publikoaren erabilerarako baimena eskatu duela, Alkate Jaun Txit Angiari ondorengoak eskatzen dizkiogu:

1. Behar besteko izapideak egin ditzala "Alarde Fundazioa Hondarribia" fundazio denetz, benetan, eta non dagoen erroldatuta jakiteko.
2. "Alarde Fundazioa Hondarribia" delako horrek legezko eskumenik ote duen hiriko espazio publikoetan ekitaldirik antolatzeko.
3. Azkenik, "Alarde Fundazioa Hondarribiak" berak, eta antolatzeko asmoa duten ekitaldiak, *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea* eta Gasteizko Legebiltzarrak onartu berri duen *1/2022 LEGEA, martxoaren 3koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen bigarren aldaketa egitekoa* betetzen ote dituen.

Eskatutakoa argipenak prestutasunez idatziz helaraziko dizkiguzuelakoan, adeitasunez.

Hondarribian, 2022ko martxoaren 21ean
Hondarribiko EH Bilduko Udal Taldeak

¹ https://www.jusap.ejgc.es/kadl.es/r47-edakirng/eu/contenidos/informacion/form_basqueda_fundaciones/eu_formbusqbuscador_fundacion.html



SARRERA

Guk 2022/2012 irailak 2an Alarde Fundazioak Hondarribiko Alardea antolaketaren baimenaren dekretuaren inguruan zenbait galdera egin nahi ditugu. 25 urtetan ez bada dekretu hau aztertu, utziko didazue behar duen bezala aztertu eta zalantzak galdetzen.

EUSKARA

Lehenengo eta behin alor guztietan salatu dugun kontu bat dago. Euskararena. Gure hizkuntzarekin lotsagabeki jokatzeko baduzue ere, honek gu lotsatu gaitu. Nola da posible dekretuaren horrela landuta egotea:

EUSKARAZ	ESPAÑOLEZ
Kontuan izanda 2019ko abuztuaren 12an eta 5803SE zenbakiarekin...	Resultando que con fecha de 29 de julio de 2022, y RE nº 6259

EUSKARAZ	ESPAÑOLEZ
2019ko alardearen antolaketa	Organización de Alarde 2022

EUSKARAZ	ESPAÑOLEZ
Gipuzkoako Gobernuaren Ordezkaritzaren 2019ko uztailaren 15eko	...

Data ia guztiak gaizki daude, teknikariek hanka sartu badute ere, Alkate jauna, dekretu honek zure sinadura du, eta beraz, zu zara arduraduna. Dekretu hau legezkoa den ere zalantzak ditugu...

Hondarribiarrei mezu bat, "hitzez ekiteko garaia" den honetan eta euskaldunoi kalean etxeko lanak jartzen dizkiguten bitartean, udalean euskara ez da lan hizkuntza. Tokiko gobernuaren jardunean euskarak ez du baliorik.


DEKRETU EZ NEUTROA

Beste ikuspuntu batetik aztertzen badugu dekretua bera baimen bat emateko testu neutro bat izan beharko luke, ba ez da batera neutroa eta gatazka honetan matxisten alde egiten du.

Udalaren txostenean jasota dauden alpuak ekarriko ditut esandakoa ilustratzeko:

Aipatzen da denboran eta tokian Alardeak eta Jaizkibel konpainiak bat egiten dutela eta hori "ekidin egin behar dela ordena publikoa zaintzeko". Urteak dira konpainia eta Alardeak

(Parentesia) Bozka bila etorri gara?



Zertara etorri gara gaur?





Zergatik orain?

- ▶ Jaiak eta berdintasunaren inguruan sortutako arazoetan konpontzen instituzioak direlako giltzarria (Emakunde)
- ▶ 2022ko Alardeko hausnarketa bukatuta lana egiten jarri eta proposamena orain bukatu eta plazaratu nahi izan dugulako
- ▶ 2023ko Alardea antolatzeke seguritate falta
 - ▶ Urte gehiegi iraun dituen gatazkari aterabidea. Proposamen ausarta da gurea eta eskuzabala. Proposamen errealista eta garaikidea egin nahi dugu.
 - ▶ Herriko ondareak bere jatorrira bueltatu behar du goiz edo berandu. Alarde publikoa

HONDARRIBIKO ALARDEA - Araudia

2023ko apirilaren 20an, Hondarribian
Hondarribiko EH Bilduko lantalde feminista



Dokumentuaren azken bertsioa hemen.



Hondarribiko Alardea - Araudia

- 27 orrialde
- 83 artikulua
- 11 atal
 - Alardearen osaketa
 - Alardea
 - Antolakuntza
 - ...
- 3 erreferentzia nagusi
- Lantalde zoragarri bat

1990eko Udalak argitaratutako Alardeko Ordenantza

a se basa en dos puntos

Gipuzkoaren alde lan egitea etorkizuneko zerbitzuak eskainiz

Gipuzkoako Kutxan geure bezeroi zerbitzurik onenak eskaintzearen ari gara lanean. Zerbitzu bizkorak, Praktikoak, Gaurkotuak, Eraginkorrak, Bizimodua errazten lagunduko dituzten zerbitzuak.

Edozein finantz arazo konpon dezaketen zerbitzuak.

Horretarako ongi prestaturiko lan-taldeak bait daukagu. Baita teknikariko aurrerabiderik aurreratuena ere.

Eta garrantzitsuenak: gipuzkoarrek garelako. Eta geure lurraldea inork baino hobeto ulertzen dugulako.

Horrexegatik esan dezakegu geure jokabideak bi oinarri dituela:

Gipuzkoaren alde lan egitea, etorkizuneko Zerbitzuak eskainiz.

Gipuzkoan, ez dago gu bezalakorik.

deak bi oinarri ditu

GK:

PUZKOAKO KUTXA
JA DE GUIPUZCOA

ORDENANZA DEL ALARDE DE HONDARRIBIA



HONDARRIBIKO ALARDEAREN
ORDENANTZA

- Alarde publikoaren antolaketa ulertzeko ezinbestekoa
- 3. atala osatzeko giltzarria

16.- ALARDEKO BURUZAGIAREN IZANDAPENAREN BERRI EMATEA.

Alkate Jaunak Alardeko Buruzagi izateko Beñardo Lazkanotegi Arrasate Jauna izendatu duela adierazi du.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

17.- ALARDEKO JUNTAREN ARAUDIA ONARTZEA.

Alardeko Juntaren Araudiaren zirriborroa ikusirik.

Aipatutako zirriborroa bozkatu eta onartua izan da, aldeko hamasei botoz eta aurkakorik gabe.

Ondorioz, **Udalbatzak** bildutakoen aho batez, hauxe **ERABAKITZEN DU**:

Alardeko Juntaren Araudia onartzea, zeinak hitzez hitz honela baitio:

- Alardeko Junta, Alkatea edo berarengatik delegatutako pertsona batez eta hamabi partaidez osatuta dagoen Organismo bat da. Partaide hauen artean Burgomaestrea eta Infanteriako Komandantea aurkitzen dira. Juntako partaide bakoitzak Konpainia edota Unitate ezberdin batetako izan behar du.

- Juntaren helburua Alardea eta bere inguruko ekintzak ondo ateratzen saiatzea da. Juntara iristen diren ideiak eta proposamenak ikasi eta koordinatuko ditu, esanahi historikoa kontutan harturik.

- Alardeko Juntak ez dauka erabakiak hartzeko izaerarik. Bere lanak, ikasketak eta ondorioak Mandoei eta/edo Udalari aurkeztuko dizkiete, bakoitza bere kasuan, hauek izango dira aurkeztutako gaiei buruz erabakiak hartuko dituztenak.

- Beraren partaideak Alardearenganako interesa eta maitasuna izan behar dute. Hondarribitarrak gutxienez bertan hamar urtez parte hartutakoak izan behar dute, eta Hondarribitarrak ez direnak hamabost urte jarraian. Azkeneko baldintza hau salbuespen bezala hartuko da eskubidea duten Alardeko Mandoen gehiengo absolutuaren akordioz.

- Alardeko Juntaren partaidetza zerrenda ireki baten bitartez izango da. Parte hartu nahi duena bere Konpainiak edo Unitateak abalatu beharko du. Alardeko Konpainia edo Unitate bakoitzak hautagai bakar bat aurkeztu dezake. Hautagaien zerrenda Konpainia edo Unitate bakoitzaren Mandoen edo beraiek

1995eko Udalbatzako Alardeko Juntaren Araudia

- Udalak antolatutako Alardean boterea nola banatzen den ulertzeko giltzarria
- 5. atalean Antolakuntza delakoan ezinbestekoa

**ORDENANZA DEL ALARDE DE LA MUY NOBLE, MUY LEAL,
MUY VALEROSA Y MUY SIEMPRE FIEL
CIUDAD DE HONDARRIBIA,
EN HOMENAJE A SU EXCELSA PATRONA
LA VIRGEN DE GUADALUPE**

2019ko AFren “Ordenanza del Alarde”

- Ordenantzaren egitura erabili dugu
- Datu eguneratuak dituena (konpainiako edo unitateetako kide kopuruak, ...)
- Araudi garaikideagoa, gaur egungo antolakuntza biltzen duena
- Gaur egungo Alardea ulertzeko giltzarria. Ez dugu dena hankaz gora jarri nahi

Ama birjinaren estandartea eta elizako kideez osatuta egongo da

2.4 MUNIZIOA

41. Artikulua – Munizioa

Abuztuaren 15eko bileran erabakiko da Konpainiei munizioak noiz eta non banatuko zaizkien.

3 ALARDEA

3.1 ALARDEAREN BURUA

42. Artikulua – Nor da Alardearen Burua?

Udalbatza eta Kabildoa izango dira Alardearen Buruak eta Tropak ohorea eskainiko die.

3.2 ALARDEAREN MARTXA

43. Artikulua - Batailoia kontzentrazioa Gernikako Arbolako lorategian

- Tropa, Gernikako Arbola Plazan bilduko da goizeko 8,30etan. Kornetinak "dei orokorra" eginez tropako kideak komandantearen agindupean bilduko dira.
- Komandanteak "kapitainei deia" egingo die hauen berriak jaso eta aginduak emateko.
- "Atentzio" dei baten jarraian Burgumaisua iritsiko da eta honek hartuko du agintaritza, tropa ikuskatu ondoren.

44. Artikulua – Troparen martxa

- 9:00tan Tropa Arma Plazarantz abiatuko da eta han Burgumaisuak kapitainei dei egingo die, hauen berriak jaso eta dagozkion aginduak emateko.
- Ondoren Hiriko Bandera Alardean sartuko da, zeina berezko eskubidez Arkollako Konpainiak eramango baitu ondoren zehazten den moduan.
- Arkollako Konpainia, Danborrarekin batera, Jasokunde eta Sagarrondoko Andre Mariaren Eliz Atarira joango da, Hiriko Bandera han egongo baita Udalbatza eta Parrokiako Kabildoarekin.
- Hiriko Bandera daraman Udalkidea Arkollako Konpainian sartuko da.
- Ondoren Arma Plazara itzuliko dira.

45. Artikulua – Deskargak

Alardearen ospakizuna

- Berezko Alardearen ospakizuna berreskuratzen saiatu, adibidez: 44.b,c,d herriko bandera Alardean sartu eta Udaletxeko kabildoak
- Burgumaisuak arratsaldean Udaletxeko balkoitik herriko banderari egingo dio oihu
- Irailaren 7an Alkateak emango dio aginte makila Burgumaisuari

Alardeko boterearen antolaketa

- **Alardeko Juntaren** Burua Alkatea izango da, Burgumaisu, Komandante eta 10 agintarirekin batera
- Araudiko aldaketak udalbatzak berrestuko ditu
- **Agintarien Batzordeko** Burua Burgumaisua da eta unitate eta konpainietako agintariak egongo dira
- Ardura teknikoa eta erabakiak beraiena izango da

56. Artikulua – Ordezkaritza

Konpainien eta unitateen batzarrek, bere kapitainaren edo buruen esku utziko dute ordezkaritza, Agintarien Batzordeko ohiko erabakiak hartzeko.

57. Artikulua – Barne araudia

- Konpainien eta unitateen barne-antolamendua, baita uniformetasuna eta aginte-bereizgarriak Barne Araudiaren arabera arautuko da.
- Horiek guztiak Alardearen Juntak aztertu eta Agintarien Batzordeak onetsiko ditu.
- Alardearen Juntak Alardeko Araudian xedatutakoa errespetatzen eta garatzen dela bermatuko du eta Konpainia eta Unitateen barne araudiekin kontraesanik ez dagoela bermatuko du.
- Konpainia edo unitate bakoitzaren barne-araudiaren ale eguneratu bat Alardearen Juntaren esku egongo da.

5.2 ALARDEKO JUNTAREN ARAUDIA

58. Artikulua – Burua

Alardeko juntaren burua Alkatea edo honek hautatutako ordezkaria izango da.

59. Artikulua – Kideak

Alardeko Junta, Alkatea edo honek hautatutako ordezkarri batez eta hamabi partaidez osatuta dagoen Organismo bat da. Partaide hauen artean Burgumaisua eta Infanteriako Komandantea aurkitzen dira. Juntako partaide bakoitzak Konpainia edota Unitate ezberdin batetako izan behar du.

60. Artikulua – Helburuak

Alardearen Juntak Alardeko Araudian xedatutakoa errespetatzen eta garatzen dela bermatuko du. Gainera, Juntara iristen diren ideia eta proposamenak aztertu eta koordinatuko ditu, esanahi historikoa kontutan harturik.

61. Artikulua – Funtzioa

Alardeko juntak ez ditu erabakiak hartuko. Bere lanketa, ikerketa eta ondorioak Mandoei edo eta Udalarri helaraziko dizkie, dagozkien erabakiak har ditzaten.

62. Artikulua – Hondarribiko Araudia aldatzeko prozedura

Alardeko Juntak aldatzeko egiteko proposamenak jaso eta landuko ditu. Proposamena zehazten denean Hondarribiko udalean Alardeaz arduratzen den batzordeari helaraziko zaio eta honek aztertu egingo du onartu edo proposamenari uko egingez. Uko egiten badiu Alkateak edo honek hautatutako ordezkariek zergatiak Alardeko Juntari helaraziko diote proposamen berri bat lantzeko. Proposamenak behar beste aldiz kontsultatuko dira onarpena lortu arte eta ondoren udalbatzara eramango dira bertan eztabaidatzeko.

63. Artikulua – Partaide izateko baldintzak

Juntako partaide izateko baldintza hauek bete behar dira: Alardearenganako interesa eta maitasuna izatea. Hondarribiarrek gutxienez Alardean hamar urtez parte hartutakoak izan behar dute, eta Hondarribiarrek ez direnek gutxienez hamabost urtez jarraian. Azkeneko baldintza hau salbuespen bezala hartuko da Agintarien Batzordeak gehiengo absolutuz erabakitzen badu.

64. Artikulua – Hautagaitza

Alardeko Juntaren partaidetza zerrenda ireki baten bitartez izango da. Parte hartu nahi duenak bere Konpainiak edo Unitateak babestu beharko du. Alardeko Konpainia edo Unitate bakoitzak hautagai bakar bat aurkeztu dezake. Hautagaien zerrenda Konpainia edo Unitate bakoitzaren Mandoen edo beraiek delegatutako pertsonen berretsiko dute.

65. Artikulua – Berteratzea

Juntaren partaideak bilera guztietara joan behar dira. Behin betiko baja bezala hartuko da hiru hutsegite jarraian edo bost txandatuta egingo balira. Edozein motatako bajak zerrendan dauden hurrengo hautagaiekin ordeztuko dira. Baja eragin duen partaidearen Konpainiak edo Unitateak beste hautagai bat aurkeztuko du, eta hau hautagaien zerrendaren bukaeran ezarriko da.

66. Artikulua – Erabakiak

Juntak bere erabakiak bilera agertutako gehiengo sinpleaz hartuko ditu.

67. Artikulua – Juntaren berritzea

Hiru urtean behin Juntako partaideen herena berrituko da. Honen helburua momentuero esperientzia duten pertsonak eta berriak direnak, elkarlanean aritzea da.

68. Artikulua – Idazkaria

Juntak Idazkari lanak egingo dituen pertsona bat izango du. Pertsona honek hitza izango du, baina, ez du boto eskubidea izango.

5.3 AGINTARIEN BATZORDEKO ARAUDIA

69. Artikulua – Funtzioa

Agintarien Batzordearen helburua Alardea eta bere inguruko ekintzak ondo ateratzen saiatzea da. Alardearen funtzionamendu eta garapenaren ardua Agintarien Batzordearena da eta beharrezkoak diren erabakiak hartuko ditu.

70. Artikulua – Kideak

- Aginteen Batzordea honako hauek osatuko dute, hitzarekin eta botoarekin:
 - Burgumaisua
 - Bataloiko komandantea
 - Konpainiako kapitainak eta unitate buruak.
- Hitzarekin baina botorik gabe:
 - Burgumaisuaren laguntzaileak
 - Agintarien Batzordeko idazkaria.

Ekonomia Ondarea

- Udalak urtero Alardea antolatzeko diru zuzkidura prestatuko du
- 1639tik Udalak antolatzen duen ospakizuna izanik, ondareaz udala arduratuko da
- Euskal Kultura Ondarearen EAEko Erregistroan sarbidea egingo dugu

- d) Hemen zehaztuta ez egon arren, Alardearen desohorea sor dezakeen beste edozein jokabide.
e) Modu desegokian desfilatzea.

75. Artikulua - Arau-hauste arintzat emango dira:

- a) Goian aipatutako jokabide berdinak, publikoki eginak izan ez diren kasuetan eta Burgumaisuak, Konpainiako Kapitainek edo eta Taldeetako Buruzagiek okertzat ematen dituzten ekintzak.

76. Artikulua - Arau-hauste larriak honela zigortuko dira:

- a) Agintariek haien kargua behin betiko galduko dute.
b) Soldaduak Alardetik botako dira, behin betirako edo aldi baterako.
c) Konpainia osoak arau-hauste bat egin duenean, egun horretako Alardean dagokion lekuan desfilatzeko eskubidea galduko du, Agintari eta Soldadu bakoitzari emango zaion zigorraz gainera.
Bakarkako arau-hauste larriengatik zigorrak, Burgumaisuak proposatu eta Alardeko Juntak erabakiko ditu. Junta honek aipaturiko zigorrak berrius ditzake, zigortuak bere errekurtsioa idatziz aurkezten badu.

77. Artikulua - Arau-hauste arinak honela zigortuko dira:

Arau-hauste arinengatik zigorrak Burgumaisuak jarriko ditu bere irizpideen arabera.

7 BERRIKUSPENA ETA ULERMENA

78. Artikulua - Berrikuspen eta ulermena

Ordenantzaren inguruan sor daitezkeen zalantzak Alardeko Juntak argituko ditu. Bere helburua alardearen bizikidetzeta eta armonia jai giroan mantentzea izango delarik.

8 EKONOMIA

79. Artikulua - Alardearen aurrekontua

Alardearen antolaketa Hondarribiko Udalaren ardura den heinean, honek aurrekontu bat izango du eta urtero Udaletxeko aurrekontuetan programa propio izango du.

80. Artikulua - Konpainien aurrekontuak

Konpainiak, elkarteak diren heinean, haien aurrekontu propioak izango dituzte eta konpainia edo unitate bakoitzaren barne araudiaren arabera antolatuko da.

9 ONDARE IMMATERIALA

81. Artikulua - Ondarearen ardura

Hondarribiko Alardea 1638. urtean jasandako setiotik atera izana ospatzeko ekitaldia da. Urteak pasa ahala aldatuz eta egokituz joan den usadio izan da eta, gaur egun, Hondarribiko jaietako ekitaldi nagusia bilakatu da. Udal Artxibategian gordeta dauden 1639ko aktetan irakurri daitezkeen bezala Hondarribiko Udalak antolatzen duen ekitaldia izan da Alardea.

Udaletxeak bere webgunean ondare immaterial bezala katalogatuta du Alardea. Baita Arma Plaza Fundazioan berak ere.

Beraz, sortzailea bera izanik eta Hondarribiarron sentimenak modu demokratikoan bertan ordezkaturata egonik, Udalari dagokio immateriala den ondare honen ardura.

82. Artikulua - Ondarea mantentzeko baliabideak

Hondarribiko Udalak Alardearen Juntan hartzen du parte eta bertatik babestu eta sustatuko du Alardea.

Baina, hori ez da baliabide bakarra. Eusko Jaurlaritzako 6/2019 LEGEA, maiatzaren 9koa, Euskal Kultura Ondarearen legean aurreikusten den bezala, Euskal Kultura Ondarearen EAEko Erregistroan sartu eta bertatik ere babestu ahalko da ondarea.

10 AZKEN XEDAPENA

83. Artikulua - Ordenantza eta Alardearen inguruan

- a) Ordenantza hau indarrean jarri eta handik bost urtetara berrikusiko da, gertatutako gora-behera guztiak aztertu eta bere artikulua eguneratu ahal izateko.
b) Era berean, urtero Alardearen osteko balorazio bilera bat egingo du Alardearen Juntak, egon diren ezustekoak aztertu eta aterabideak proposatzeko.

Berdintasuna eta Konpainiak

- Indargune eta ahulguneak
- 3. Artikuluan dio ezin dela sexuagatik diskriminatu
- 54. Artikuluan Konpainia eta unitateek subiranotasun osoa dutela dio
- Proposamen ausarta eta eskuzabala
- 4. b puntuan Jaizkibel Konpainia Alardeko kide da

2 ALARDEAREN OSAKETA

2.1 GAI OROKORRAK

3. Artikulua - Nork hartzen du parte Alardean?

Alardea osatzen duten kideak ezingo dira sexu edo genero, arraza, sexu-orientazio, erlijio, edo desgaitasunengatik diskriminatu.

4. Artikulua - Nola osatzen da Alardea?

- Alardea honela osatzen da: Atxeroak, Danborrada, Musika Banda, Burgumaisua, Kometina, Burgumaisuaren laguntzaileak, Zalditeria, Infanteriako Konpainiak eta Artilleria.
- Infanteriako konpainiak ondoren zehazten den hurrenkeran joango dira: Jaizubia, Arkolla, Akartegi, Herria, Montaña, Semisarga, Kosta, Gora Ama Guadalupekoa, Ama Guadalupekoa, Gaztedia, Beti Gazte, Gora Arrantzaleak, Mixta, Mendelu, Olearso, Jaizkibel eta Arrantzaleen Kofradia.
- Udalbatza eta kabildoa.

5. Artikulua - Norberaren erantzukizunak

- Bataioiaren lerroetan Alardean parte hartze hutsak Araudi hau eta parte hartzen den Unitate edo Konpainiaren Barne Erregimeneko Araudia eta arau hauetatik edo horien gobernu-organoetatik eratorritako xedapen guztiak bere alderdi guztietan onartzea dakar.
- Kide bakoitza modu egokian eta kalterik egin gabe hartuko du parte Alardean. Jokabide desegokien ondorioz sortutako kalteak, norberak bere gain hartuko ditu.
- Jarrera horien ondorioak 6. Atalean, Diziplinaren ingurukoan, zehazten dira eta 73. Artikulutik aurrera dator informazioa.

2.2 AGINTARIAK

2.2.1 BURGUMAISUA

6. Artikulua - Nor izango da Burgumaisua eta nola erabakitzen da?

Burgumaisu kargua Alkateari dagokio eta berak egokitzen ematen duen beste pertsona baten esku utzi dezake. Ordezkoaren izendapena Alardeko Agintariak berresten dute, urtero abuztuak 15ean egiten duten bileran, berrautatu edo aldatze bozketan egiten delarik.

7. Artikulua - Zein aginte du Burgumaisuak?

Burgumaisua Alardearen Agintari Gorena izango da. Kargu hau berrestu ondoren, Burgumaisuak egokitzen irizten dituen neurriak hartuko ditu, alardearen garapenerako beharrezko deritzan aginduak emanez.

8. Artikulua - Zein baldintza bete behar ditu Burgumaisuak?

- Arratsaldean: Saindua ermita, Jaizkibel etorbidea, Harresilanda, San Pedro, Zuloaga, Bernat Etxepare, Sabin Arana Goiri, Zumardia, Damarri, Kale Nagusia, Arma plaza.

4 ALARDEAREKIN ZERIKUSIA DUTEN BESTE EKITALDIAK

4.1 AGINTE MAKILAREN ENTREGA

51. Artikulua - Aginte makilaren entrega

Irailaren 7an Udalbatzak Hondarribiko herriari aureskua dantzatu ondoren, Alkateak berak hautatuko Burgumaisuari emango dio Aginte makila.

4.2 ALBORADA

52. Artikulua - Alborada

Irailaren 8an, goizeko 5:00etako lehen kanpai-hotsarekin, Hondarribiko Hiriko Musika Bandako kideek alborada joko dute udaletxearen aurrean. Jarraian, hiriko hainbat tokitara joango dira, eta Alborada interpretatuko dute berriro.

4.3 DIANA

53. Artikulua - Diana

Egun horretan bertan, goizeko 6:00etako kanpaien lehen ukituarekin, Hondarribiko Hiriko Musika Bandak Udaletxearen aurrean diana joko du. Jarraian, Hiriko hainbat tokitara joango dira, eta, berriz, Diana joko dute. Ondoren, Danborradak bere lehen Diana joko du Arma plazan, gero hiriko beste leku batzuetan berriz joz.

5 ANTOLAKUNTZA

5.1 KONPAINIAK


54. Artikulua - Subiranotasuna

Bataioiari dagokien guztian, erabaki-subiranotasuna Konpainiei eta unitateei dagokie.

55. Artikulua - Batzarra

Batzarrea joaten direnek beti izango dute entzunak izateko eskubidea eta botoa dagokien Barne Araudiak arautuko du.

Botere banaketaren eskema



Egindako ahalegin zintzoa

- Proposamen ausarta dela uste dugu, edo horrela ikusten dugu guk
- Proposamen eskuzabala, asmoa blokeo egoeratik ateratzea
- Hala ere aurrera begirako eztabaidak identifikatu eta zerrendatu ditugu, ahanzturan utzi nahi ez ditugulako

Hondarribiko Alardea – Aurrera begira

Orain arte aurkeztutako araudia 2023ko alarde publikoa antolatzeke proposamena da. EH Bilduren proposamena haratago doa, noski, eta gai asko bere horretan onartu ditugu debatea ez gehiegi arrotzeko asmoz.

2023ko Alarde antolatzeke araudi hau proposatzen dugun moduan, eztabaida berriak ebatzi gabe daudela badakigu. Alarde, Hondarribiko Hiriaren ondare nagusienetako bat den heinean, herritar guztiona behar du izan.

Hori bermatzeko kide eta herritar ezberdinekin bildu gara, eta etorkizuneko araudia garaikideagoa izateke ekarpen ezberdinak jaso ditugu. Hauek dira etorkizuneko Araudian txertatu, eztabaidatu edo kendu beharreko zenbait proposamen:

- Hasierako irakurketa historikoak badu joera bat? Frantziako tropak izan ziren Hondarribia setiatu zutenak? Zeintzuk ziren Frantses horiek? Bazen Nafarroako Erresumaren aldeko norbait?
- Adinak zehaztu ditugu, baina, gomendio bezala ere jaso daitezke.
- Burgumaisua urte kopuru zehatza? Gehienez zenbat?
 - Burgumaisua emakumearena ongi lotu. Jaizkibelen desfilatutako urteak kontutan hartzeko.
 - Hondarribian jaio, 10 urte bizi eta baldintza horiek kendu.
 - Diskriminazio positiboa, emakumea bada aukera gehiago.
 - Burgumaisua kendu eta jenerala erabili. 1943ko frankoren bisitaren ondorioz aldatua izan baitzen.
- Kargu militarren izenak onartu edo militarrek ez direnak proposatu: arduradun, laguntzaile...
 - Kapitain izateko baldintzak errebisatu
 - Arduradunen artean parekidetasuna %50 gizon emakume?
- Deskargak eta suzko armak onartu?
- Infanteriako konpainiei dagokienez ordenantza berridatzi
 - Udalaren betebeharra da funtzionamendua guztiaren gainean egon eta berdintasun legea eta giza eskubideak bermatzea
 - Konpainian kode berriak onartzerakoan diskriminazio positiboa
- Atxeroen hautaketa zozketa bitartez
- Kantineren inguruan
 - Hautaketa zozketa bitartez egitea
 - Hondarribiarra izatea kendu
 - Kantinerarik gabe eta bat baina gehiago onartu aztertzea
 - Generoa edo sexua ez txertatzea
- Jai laikoaren inguruan
 - Parrokiako Kabildoa kendu behar da?

- Hiriko Bandera Elizatik sartu beharrean arkupeetatik sartzeko.
 - Elizara sartzeko kontu horiek kendu.
 - Meza Alardetik kendu. Norberaren sinesmenaren arabera utzi.
- Diziplina
 - Alardearen desohorea kendu
 - "esanahi historikoa kontutan harturik" bezalako esaldiak kendu
 - Batzordeak
 - Aurrera begira batzordetan sartzeko baldintzak kendu edo baldintzak aldatu
 - Araudian batzordeetako partaideak nola hautatzen diren zehaztu.
 - Batzorde parekideak proposatu
 - Animalien erabilera eztabaidatu eta kentzea aztertu

Aurrera begira zer?

Proposamena
sozializatu,
jendearekin bildu
eta ekarpenak jaso

Instituzioetan
presioa
mantentzen jarraitu

Mila esker gu entzuteagatik, **zuen** da **hitza**.

- Galderak
- Zalantzak
- Iradokizuna
- Hausnarketak
- ...

HONDARRIBIKO ALARDEA

- Araudia



Dokumentuaren azken bertsioa hemen.

2023ko apirilaren 20an, Hondarribian
Hondarribiko EH Bilduko lantalde feminista

